

B

BARREN

Egunkaria libre!





OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurrira (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I ® (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirrindulariaren biomekanika
(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628





Andres
Alberdi

Bihotzerrea eragin didan kontu batekin natorkik gaurkoan, Angel. Ziur hi heu ere ez hintzela sor eta gorgeratuko; seguru erraetan erremina sumatuko hue-la, hainbeste urtean euskal liburuen testugintzan ibili ondoren.

Joan zuan ekaina, eta, harekin, iazko ikasturtea. Gogoratuko haiz, ordea, nola jakin zen Guardia Zibilak Nafarroako D ereduko 1.652 irakasle eta 28 ikastetxe zelatatu zituela hainbat hilabeteetan. Ikerketa aitzakia hartuta, «ezker abertzalearen proiektuaren balioak sustatzeko eredu propio bat sortzeko» asmoa omen zuten 441 «etazale» aurkitu zituztela zabaldu ziatean orduan. «ETAren jardun terrorista legitimatzeko eta justifikatzeko» helburua omen ziatean irakasle horiek.

“22 liburu erretiratzeko lezioarekin etorri zaiguk Iribas nafar hezkuntza-kontseilaria!”

Etorri duk ikasturte berria, eta hasi berri baino ez, hara non kanpainak segida! Oraingoan, 22 liburu erretiratzeko lezioarekin etorri zaiguk Iribas nafar hezkuntza-kontseilaria! Euskara ikasgaiko liburuen bila aritu dituk nonbait (ez diat jakin oraindik gurerik ba ote den horien artean). Argudioetan berritasunik ez, jakina: Euskal Herriko maparen barruan ageri dela Nafarroa, «markoan sartuta»; oraingo legearen aurkakoak direla mapak.

Hori, esan, nork-eta umetan guri aberria, bandera eta hizkuntza ezari zizkigutenean, eskolan gure hizkuntza eta historia sistematikoki ezkatuta zizkigutenean, sustrairik gabe utzi nahi izan zizkigutenean oinordekoek! Historia eurek esplikatu behar guri; gureak ez balio.

Ba, ez zekiat nola esplikatuko diguten zergatik deitzen zaion euskarari “lingua navarrorum” (nafarren hizkuntza). Esplikatu beharko euskararen maisu handiena den Axular nafar idazlea nora deserriratu nahi duten. Esplikatu beharko euskaraz egiten dugunon herria (Nafarroan ere egiten dituk, ezta?) ez bada Euskal Herria, zer entelekia den. Esplikatu beharko zigutek...



Angel
Ugarteburu

Nafarroako kontuekin hatorkit gaur, Andres. Geure-geurea dugun arazoa. Horregatik hainbesteko mina eta bihotzerrea. Sustrai zaharra duen kontua dok sorginen ehiza hori, erlijio-gatazken ondorioz zolitutako gaitza. XVI.mendeko kontra-erreformak eta oraintsua-go errepublikaren eta gorrien aurka altxatu ziren karlistek, ultrakatolizismoan finkatu zuten Nafarroako politika, herriaren benetako kultura eta izaera demonizatzuz eta arrotzen interesetara makurtuz.

Gero “status quo” hori nolnahi defendatzea dok askorentzat politika egitea. Indarrez ezarritako injustizia bermatzea da haientzat demokrazia eta ez jendeari hitza ematea. Batasuna inposatzea juek, horrenbestez, helburu eta ez batasuna adostea.

Astelehenean jarri nok hireari jarraipena ematen, Andres. Bihotzerrea larunbatez Elgoibarren egindako manifa ederrean goxatu najoan, poza sentitzeraino. Ez dituk egunero elkartzen borondate eta asmo oneko hainbeste pertsona helburu berberak erakarrita, nahiz eta pentsaera ezberdinak izan: justizia iraindua berreskuratzeko aldarrria.

“Indarrez ezarritako injustizia bermatzea da haientzat demokrazia”

Politofago (politika ogibide zuen) gehiegi zegoela eta Herri honek politiko argi eta kementsuen beharra duela aipatu nion hara hurbildu zen goi mailako kargu bati. - Ez dok erraza, baina saiatu beharko joagu- erantzun jostan.

Mundu zabaletik mezu baikor gutxi iristen jakuk, baina ni ziur najak merezi duela, zapatuan egin genduan lez, giza kontzientziari men eginez denok aintzat hartuko gaituen justizia elkarbizitzan eraikitzea.

Askatasunari bide emango dion justizian sinesten joat eta ez debekuz jositako morroitzan.

Jarri ezazu zure publizitatea

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

BARREN
astekarian
943 744 112



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA**
Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO**
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro **KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi,
Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara
Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti
Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute,
Janire Elordi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-
1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskutitzailearen Topogunak

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

San Lazaro egoitzaren izenean, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu urtean zehar, ekitaldiak, jaiak... antolatzen laguntzen diguten pertsona, talde eta erakunde guztiei.

Bidenabar, Nagusilan elkarteko boluntarioek, bereziki Elgoibarko taldekoek, egiten duten lan-ordainezina eta eskuzabala azpimarratu nahiko genuke, baita hainbat elkarten gure egoiliarrekin izan duten bihotz-zabaltasuna ere. Bereziki, ondorengoak aipatu nahiko genituzke: Errosario kaleko jai-batzordea, Udalaren Musika Banda, I. Bereziartua Musika Eskola, Herri Eskola, Plaentxi bikotea, Argia Taldea, Parrokiako Abesbatza, Miski - Peru, Aire Andaluz Taldea, Santa Agedako korua, Elgojaitza, San Bartolome parrokia, Galiza Etxea, Udal Ludoteka eta Gaztelekua.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu, sarri askotan, bakarka eta isilpean egoitzarekin elkarlanean diharduten beste hainbati.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Udalaren sailtetako langileek gure lana egin ahal izateko, ematen dizkiguten erraztasun guztiak.

Gure esker ona horientzat guztientzat.

San Lazaro Egoitza

5 urte! 5ak askatu!

Arnaldo Askatu Politika Askatu herri-ekimenetik balorazio ezin positiboagoa egiten dugu larunbateko manifestazioaz. Arnaldo Otegi eta berarekin batera *Bateragune auzian* kartzelatutako guztiek libre behar dutela aldarrikatu genuen beste behin, eta gure aldarrikapenak merezi zuen oihartzuna izan zuen komunikabideetan ere. Plataformatik gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu guk egindako deialdira batu ziren guztiei, eta eskerrik asko, era berean, Elgoibarko Udalari, udaletxeko langileei, eta, bereziki, larunbatekoa handia izan zedin boluntario lanean jardun zuten lagunei eta Iturengo joaldun saiatuei.

Eskerrik asko guztioi, eta eutsi!

**Arnaldo askatu, politika askatu
herri-ekimena.**

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Santa Ana kaleko etheen atzeko parkea zikinkeriaz beteta egoten da:

“Santa Ana kaleko Babes Ofizialeko etxebizitzaren atzeko parkea zikinkeriaz beteta uzten du jendeak. Ume asko ibiltzen da ingurune horretan jolasean, eta hori ondo dago, baina gero garbi utz dezatela ingurunea. Jende askok txakurrak ere parke horretara eramaten ditu, eta berdegunea txakur kakaz beteta egoten da. Denetariko zaborra pilatzen da, eta hori gutxi baliatuz, gure etxea estaltzeko jartzen ditugun apaingarriak ere hondatzen dizkigute. Etxe horietako bizilagunok errespetua merezi dugula uste dugu, beraz, eskertuko genuke gure lorategiko estalgarriak ez hondatzea. Horrez gain, dagokionari eskatu nahi diogu ingurune hori txukun mantentzea”.



San Frantzisko kaleko estolda batetik labezomorroak sartzen dira etxeetara:

“Egoera jasanezina bihurtu da. San Frantzisko kaleko etxe batean bizi gara, eta egunero aurkitzen dut labezomorroren bat etxe barruan. Kaleko estolda batetik irtezen dira labezomorroak, eta etxeetarako bidea ikasi dute. Jangelako mahai gainean aurkitu nuen bat joan zen astean, eta horrela ezin gara bizi. Etxeko leiho guztiak itxita eduki behar izaten ditut eta ate azpian trapaak jarri behar izaten ditut handik sartu ez daitezzen, baina hala ere, beti aurkitzen dute zirrikituren bat. Badakit arazo hau alde zahar guztian dagoela. Udaletxean jakinarazi dut gure egoera, eta labezomorroren kontrako fumigazioren bat egiteko eskatu diet, baina oraindik ez dute arazoa konpondu. Zerbait egiteko eskatu nahi dut, horrela bizitzea ez delako batere eroso”.

Ikastolara sartzeko eta irteteko orduan auto ilara handiak pilatzen dira Ermuaranbide kalean:

“Jende askok autoz eramaten ditu umeak Ikastolara, eta sekulako auto ilarak pilatzen dira Ikastolara sartu eta irteteko orduetan. Udaltzainak egoten dira trafikoa zuzentzen, baina hala ere, hiru zebra bide daude oso tarte txikian, eta Ermuaranbide kalean sekulako auto ilarak egiten dira. Arazo hori moduren batean konpondu egin beharko litzateke”.



San Frantzisko iturri inguruko espaloia kendu dute:

“Herriko irisgarritasuna hobetzeko lanean dihardu Udalak, eta azken lanen artean, San Frantzisko iturri inguruko espaloia kendu dute. Oso ondo geratu da, eta orain ume aulkiarekin edo erosketak karroarekin ibiltzea askoz errazagoa da. Herriko beste guztiak batzuetan ere lan bera egin beharko luke, oraindik leku askotan trabatzen gara-eta”.



Sahararen aldeko liburu azoka egingo dute Elgoibarren asteburuan

Batzen duten dirua Algeriako Tindoufeko errefuxiatu guneeetan banatuko dute

Eibar-Sahara elkartearen eta Elgoibarko zenbait boluntarioren ekimenez, erabilitako liburuen azoka solidarioa egingo dute asteburuan Elgoibarren. Kalebarren plazan jarriko dute azoka, Kultur Etxearen ondoan, 11:00etatik aurrera. Azaldu dutenez, saharaiarrei laguntzeko modu bat baino gehiago izango da. Batetik azokan salgai jarriko dituzten liburuak erosiz; eta, bestetik, jendeak etxean dituen liburu eta diskoak ere jasoko dituzte, gero azokan saltzeko. Batutako dirua, Tindoufeko kanpamenduetan zailtasun fisiko eta psikikoak dituzten gazteekin lan egiten duten zenitroetara bideratuko dute, AFTAL Getxoko elkartearen bidez. Besteak beste, gazte horiek gosaritarako behar dituzten elikagaiak (gailetak, mermeladak eta kakaoa) erosi eta bidaliko dituzte Tindouferra. Informazio gehiago Eibar-Sahara elkarteak Facebook sare sozialean duen orrialdean aurkitu daiteke: <https://www.facebook.com/eibarsahara.elkartea.5>



Eibarren egin zuten azokako irudia.

Fiskalak hiru urteko kartzela zigorra eskatu du Aitzol Etxabururentzat, besteak beste, Elgoibarko PSE-EEren egoitzaren aurkako erasoagatik



Aitzol Etxaburu Artetxe ondarrutarra epaitu zuten astelehenean Espainiako Auzitegi Nazionalan, ETArekiko lotura eta atentatu batzuk burutu izana egotzita, horien artean 2008an PSE-EEren Elgoibarko Herriko Etxearen aurkako bomba erasoan parte hartu izana leporatu dio fiskaltzak. Hiru urteko kartzela zigorra eskatzeaz gain, 86.000 euro ere eskatu dizkiote kalte ordainetan. Frantzia-

ko Poliziak 2009an atxilotu zuen Aitzol Etxaburu Villaremberteko eski-estazioan, Alpeetan, Andoni Sarasola eta Alberto Matxainekin batera. Gero, 2014ko urtarilean, zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zion Parisko epaitegiak, lehergailuak egin eta ETA erakundeak Frantziako hegoaldean zituen zuloen kudeaketaz arduratu izana leporatuta. Harrezkero, Fleury Merogis-eko (Frantzia) kartzelan

egon da preso. Joan den irailaren 3an, baina, Frantziatik Espainiara ekarri zuten, Espainiako Auzitegi Nazionalak hala eskatuta. Astelehenean epaitu zuten Madrilan, eta besteak beste, Elgoibarko sozialistek Urazandi auzoan duten Herriko Etxearen aurkako bomba erasoan parte hartu izana egotzi diote. PSE-EEren Elgoibarko Herriko Etxean bomba jarri eta sozialisten egoitza txikitu zuen ETAK 2008ko apirilaren 20an. Ez zen inor zauritu, baina kalte material handiak eragin zituen lehergailuak egoitzan bertan, eta baita inguruko etxebizitza eta ibilgailuetan ere. Aitzol Etxaburuk ez zuela eraso horretan parte hartu adierazi zuen epailearen aurrean. Ibon Iparragirrek ere deklaratu zuen epaiketan. Hiru urteko espetxe zigorra betetzen ari da Iparragirre Elgoibarko atentatuan parte hartu izana leporatuta. Etxaburu eta biek atentatuan parte hartu zutela onartu zuen Iparragirrek Ertzaintzaren aurrean, baina torturapean egindako aitortpena izan zela salatu zuen asteleheneko adierazpenetan.

Hitzaldia **Makina-erremintaren mendeurrena**



Elgoibarko makina-erremintaren mendeurrena dela-eta, *Makina-erremintaren eta industriaren etorkizuna Euskadin* izeneko hitzaldia antolatu du Udalak. Azaroaren 7an izango da, eta sektorearen etorkizuneko erronkei buruz jardungo dute, besteak beste. Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak egingo du ongi-etorria 11:45ean, eta segidan Pedro Maria Garcia Larragan Radio Euskadiko albistegietako ekonomia arduradunak egingo du mintegiaren sarrera. Ondoren, Guillermo Dorronsoro Deusto Business School-eko dekanoa eta IK4 Research Alliance-ko presidenteordeak, Jose Luis Larrea Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Ohorezko presidentek eta Michael Hauser Tornos S.A.-ko CEO zuzendari exekutiboak hitz egingo dute.

Hitzaldiaren ostean, Gazteentzako Asmaola+ enpresa industriaren ideia lehiaketako sariak banatuko ditu Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak.

Berbia **Odol emaleak**

Gipuzkoako odol emaleek insignia eta diploma banaketa ekitaldia egingo dute urriaren 25ean, Eibarko Untzaga Plaza jatetxean. 25, 40, 50 eta 75 aldiz odola eman dutenak omenduko dituzte. 13:15ean egingo diete harrera, eta jarraian insigniak banatuko dizkiete. 14:30ean egingo dute bazkaria.

Elgoibarko odol emaleen elkarteak, bestalde, gogorarazi du gaur arratsaldean egingo dituztela odol ateratzeak, Osasun Zentroan duten lokalean. Interesatuak 18:30etik 20:30 bitartera izango dute odola emateko aukera. Elkartetik gazteak animatu nahi dituzte bereziki, odola ematera.

Lehiaketa **Euskararen eguneko esaldia**

Elgoibarko Izarrak DBHko eta Batxilergoko ikasleentzako esaldi lehiaketa antolatu du, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Lehiaketa irabazten duen esaldiarekin kamiseta egingo dute antolatzaileek, eta 13-18 urte bitarteko nerabeen artean banatuko dute, doan. Kamiseta hori abenduaren 3an janzteko izango da, Euskararen Nazioarteko Egunean, alegia. Irabazleak ehun euroko erosketa txekoa jasoko du, herriko dendetan gastatzeko. Esaldiak bidaltzeko ondorengo kanalak erabili daitezke: Whatsapp edo Telegram (689 05 85 55), eta Twitter (#365esaldi). Parte hartzeko azken eguna urriaren 31a izango da.

Sanbartolomeetako argazkiak jarri dituzte jubilatuen egoitzan

San Bartolome jaietako jubilatuen bazkarian ateratako argazkiak ikusgai jarri dituzte jubilatuen egoitzan, eta nahi duenak kopiak eskatzeko aukera izango du. Horrez gain, Gabonetako loteria salgai jarri dutela jakinarazi dute egoitzako arduradunek. 75.302 izango da aurtengo zenbakia, eta 20 euroko dezimoa eta 5 euroko loteria txartelak erosi daitezke. Azkenik, jubilatuen astea abenduko bigarren astean ospatuko dutela eman dute jakitera, eta 80 urtetik gorako bazkaria abenduaren 11n egingo dutela. Bazkarira joateko egoitzan bertan eman behar da izena. Egun horretan aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak omenduko dituzte, eta horretarako Famili Liburua aurkeztu beharko da.

Errosario kaleko errifaren zenbaki sarituak atera dituzte

Errosario kaleko dendari eta ostalariak errifak saldu zituzten jaietan, eta dagoeneko jakinarazi dituzte zenbaki sarituak: lehenengo saria: 0388 (erreserba, 1.813); bigarren saria: 2.574 (erreserba, 1.915); eta hirugarren saria: 1.291 (erreserba, 1.084). Errosario kaleko establezimenduetan gastatzeko erosketa txekoa jasoko dute sari-dunek.

Gizonezko bat hil da Maltzagarako bide gorrian, ondoezak jota

Martitzen arratsaldean gizonezko bat hil zen Maltzagarako bide gorrian pasiaran zebilela. Ondoezak jota, zorabiatu eta lurrera erori zen. Lekukoek larrialdi zerbitzuetakoei deitu zieten, baina ezin izan zuten ezer egin, eta han bertan hil zen gizona. 72 urte zituen. Udaltzainak eta Ertzainak ere bertaratu ziren, eta bidea itxita egon zen hainbat orduz, gorpua altxatu zuten arte.

JOAN MARI TORREALDAI

'EGUNKARIA AUZIKO' AUZIPETUA

'Egunkaria'-ren auzi ekonomikoa betiko itxi zuen asteartean Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak, preskribituzat jota. Zortzi auzipetu zeuden 'Egunkaria auzia-
ren' atal ekonomikoa, denak ere zigor eskaera handiekin, eta horietako bat zen Joan Mari Torreal dai (Forua, Bizkaia, 1942). 11 urte eta zazpi hilabeteren ondoren, bukatu da beraz, auzia, baina 'Euskaldunon Egunkaria' itxita dago 2003ko otsailaren 20az geroztik. Horrek ez du atzera bueltarik; kaltea egina dago.

Ainara Argoitia



Arg.: Berria

Fernando Furundarena, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Joan Mari Torreal dai, Iñaki Uribe, Jose Mari Sors eta Begoña Zubeltzu auzi ekonomikoko auzipetuak. Txema Auzmendi falta da.

“Lasaitu handia hartu dugu, baina ezin esan justizia egin denik”

Amaitu da aspaldi amaitu behar zuena. Noiz jakin zenuen?

Asteartean, ordubatak pasatxoan. Orduerdi lehenago abisatu ziguten 13:00etan jakinaraziko zutela ebazpena eta ez dakizu ondo zein luzea egin zitzaidan ordu erdi hori. Ez genekien zein aldetara egingo zuten.

Azken unera arte beldur-beldurretan orduan.

Bai, bai. Aztarren ere ez genuen zer gerta zitekeen. Zorionez, baina, oraingoan gure aldekoa izan da erabakia, eta lasaitu handia hartu dugu. Lasaitua, orain arte arma jaurtikari bezala erabili duten *Egunkaria* historia bihurtu delako eta ez dugulako epaiketak dakarren kalbario guztia bizi beharko. Ez dugu sufrikario hori bizi beharko. Epaiketa gurrupil zoroa da, eta sekula ez dakizu hortik nola irtengo zaren. Lehenago ere bizi izan dugu, eta ondotox dakigu zein espantuzkoa den.

Hartu duzu ospatzeko astirik?

Taldean ez oraindik. Hori ostiralean egingo dugu, Andoainean.

Atal ekonomiko hau bitxia izan da. Berez, delitua salatu behar zuenak, Gipuzkoako Ogasunak, ez zuen deliturik ikusi eta ustezko kaltetua zenak, Jaurlaritzak, ere ez. Absolutzioa merezi zenuen hortaz, baina horren orde z, auzia arxibatu egin du Gipuzkoako Lurralde Auzitegiko

epaimahaiak, aurrez Carmen Zubimendi Donostiako Zigor Epaitegiko epaileak eman zuen autoa ontzat emanda. [Auzia arxibatzea erabaki zuen Zubimendik marxoan, ustezko delituen preskripzioagatik].

Gertatu dena da epaimahai horrek ez duela fiskalaren helegitea onartu. Preskripzioa zegoen auzitan, fiskalak hori errekurritu zuelako, baina epaimahaiak zehaztugabetzat jo ditu fiskalak aipaturiko auto bateko akusazioak, eta auzia arxibatzeko agindu du. Auzi ekonomikoa oso kutsatua egon da sumario nagusiarekin, auzi politikoarekin, eta orduan erabili zuten material guztia da, hain justu ere, oraingoan erabili dutena. Epaiketa hartan ETako kide ginela leporatzen ziguten; ETaren tresna zela *Egunkaria* eta erakunde armatuaren diruarekin mugitu ginela, eta era berean, gure dirua ETA finantzatzeko erabili zela. Sekula ez zaigu esan, baina, zeinek zer egin dugun. Babesgabetasun osoa bizi izan dugu. Fiskalak ere ez zuen guri zer inputatzen ziguten argitzeko lan egin, eta hori onartezina da. Gure errugabetasuna frogatzen aritu gara, gutako bakoitzari zer egotzen ziguten jakin gabe. Autoa irakurtzen duzu eta Barcenas bera baino gaiztoagoak garela ematen du, baina beste aldean zuk esan duzuna dago: ustez kaltetuak izan direnek argi esan

dutela – Eusko Jaurjaritzaren kasuan, birritan– ez dela deliturik egon, eta hori biak ere erakunde publikoak direla, eta delituren bat ikusiz gero, akusazio bezala agertzeko obligazioa dutela. Sinistezina da.

Kontuan izanda apirilaren 12an Espainiako Auzitegi Nazionalak absolutu egin zintuztela sumario nagusiko bost auzipetuak, eta gainera, atal ekonomikoan ustezko kaltetu izan direnek ez dutela deliturik salatu, nola liteke honek horren luze jo izana?

Arrazoi bakarra dago: Jaurjaritza berandu ibili dela. Gipuzkoako Ogasunak deliturik ez zegoela arrazoitzeko txostena aurkeztu zuenean aurkeztu izan balu Jaurjaritzak berea honek ez zuen horren luze joko. Miguel Angel Carvallo fiskalak Gipuzkoako Ogasunak egindako txostena jaso zuenean, argi esan zuen Ogasunak –parte inplikatuak– deliturik ikusten ez bazuen ez zela bera izango hemen delitua egon zela esan-go zuena, eta hala, erretiratu egin zuen akusazioa. Baina Jaurjaritzak ez zuen orduan txostenik egin, eta hauek segi egin zuten.

Zer esan nahi du zuentzat epaiketaren pisua kentzeak? Zenbateraino baldintzatu dizue auzi honek bizimodua?

Eguneko 24 orduak ez ditu baldintzatzen, baina kezka hori, iluntasun hori, hor duzu uneoro eta pentsatzen duzu iritsiko dela epaiketa eta hasi beharko duzula berriro epaiketa prestatzen, gure arteko bilerak egiten, erantzukizunak nola banatuko diren erabakitzen, abokatuaren laguntzaz argudiaketa lotzen, eta badakizu gainera, epaiketara bederatzi guardia zibil agertuko direla eta etorriko direla baita ere Zerga Administrazioako Estatu Agentziakoak, eta errugabe izan arren, jarri beharko gara berriro ere akusatuen aulkian. Hori dena sailhestu dugu behintzat, eta esan dezakegu zorionekoak gara. Lasaitua hartu dugu, baina hala ere, ezin esan justizia egin denik. Absolutzioa nahi genuen.

Amorrua ere emango du, baina, ala?

Bai, jakina, bihotzerrea eragiterainokoa.

‘Egunkaria auziko’ sumario nagusiak oihartzun handia izan zuen, baina epaileak absolutzioa eman zuenean askok pentsatu zuten bukatu zela dena. Hala ere, auzi ekonomikoak hor jarraitu zuen, zigor eskaera handiekin. Nola bizi izan duzue hori?

Ez da erraza izan, ez pentsa. Batetik, ulertzen duzu normala dela hori gertatzea, zarata handia atera genuelako hasieran eta sumario nagusiko sententzia oso ona izan zelako. Beraz, normala da jendeak –Justizia ulertzeko modu berezia duten batzuek salbu– dena hantxe amaitu zela pentsatzea. Baina segitu egin zuen, eta bai, bakardade handiagoa sentitu dugu. Normala da, baina. Gu geu ere ahuldu gara, galdu dugu hasieran geneukan muskulua, eta jakina, berriro azalpenak ematen hastea eta jendea berotzen hastea asko kostatzen da, gaia ez dagoelako giroan. Eta halakoetan pentsatzen duzu: eta egoera honetan epaiketa baldin badator, zer izango da hau? Baina, zorionez, bukatu da.

11 urte luze izan dira. ‘Egunkaria’ itxita dago, eta auzi honetan nahastutako batzuk [Inma Gomila, Martin Ugalde eta Luis Goia] eta baita proiektu berriaren buru jartzeko ausardia izan zuena ere [Joxean Lizarribar] falta dira. Zer duzu esateko?

Iraganera begiratzen dudanean, puntu ilun hori hor dago, eta mina handia da. Oraintxe bertan zurekin ari naizen leku honetan bertan sartzen naizen aldiro ere, Guardia Zibilaren presentzia bizi-bizi sentitzen

dut, hemen ibili zirelako nire artxiboetan, eta gogoratzen dudanean gu atxilotzera nola etorri ziren eta ondoren jasan genituen tortura guzti haiek, eta oroitzen naizenean bidean galdutako lagunez... zer esango dizut ba! Hamaika urte eta zazpi hilabete hauetan ondo ordaindu dugu, bai, egin ez genuenaren zigorra.

Egunkaria itxi zuten, baina zuek beti babestu duzue eraso hau euskal kulturaren kontrakoa izan dela.

Hala izan da-eta. Zigor kolektiboa izan da guk bete duguna, azken finen euskararen mundua delako hemen kriminalizatu nahi izan dutena. Eta alde horretatik, ‘harrotasun puntu bat’ badaukagu, uste dugulako duintasunez eraman dugula. Memoria ariketa hori eginda, baina, alde onarekin gelditu nahiko nuke: herritarrek agertutako babesarekin eta maitasunarekin.

‘Egin’ egunkarian egindako lanagatik kartzelan daude hainbat lagun eta adierazpen askatasunaren kontrakoa beste eraso batzuk ere izan dira. Zer duzu esateko?

Garbi dugu gu ez gara izan adierazpen askatasun ezaren biktima bakarrik, inguruan, zoritxarrez, kasu asko dauzkagulako eta sufrimendu izugarria dagoelako barreiatuta. Ez gaude mundu zerutiar batean, ez, aginte mota baten borondate zentsuratzaile hori hor dagoelako; hori ez delako hil. Eta guk aurre egin diogu, baina zer nolako kostua izan du guretzat horrek? Leporatzen dizute edozer eta norberak hasi behar du hemen norbere errugabetasuna frogatzen. Hasi behar duzu defentsa prestatzen, eta askotan, frustrazio askorekin ekin behar diozu, gainera, lan horri. Ikaragarria da, adibidez, bai Madrillgo prentsa idatzian eta baita oso euskaltzaleak ez diren hemengo batzuetan ere, zazpi urtean artikulua bat sartu ezina.

Donostiako Zigor Epaitegiak auzi ekonomiko artxibatzea erabaki zuen egun haren [martxoaren 23an] ondoren esan zenuen ‘Egunkaria libre’ aldarriak indar mingotsa izaten jarraitzen zuela. Gaur ere bai?

Bai, bai. Momentu hartan ez nengoen hemen eta jakin nuenean epaileak auzia artxibatzea erabaki zuela, berehala pentsatu nuen fiskalak helegitea jarriko zuela, aurretiazko saioan ikusi genuelako zer jarrerarekin aritu zen. Baina ingurura begiratu, eta poza ikusten nuen. Animatuta ikusten nuen jendea, baina nik, kanpotik eta nire bakardade hartatik, garbi ikusten nuen jarraipena izango zuela auziak. Segidaren mingostasunaz ari nintzen hori idatzi nuenean. Eta orain ere, aldarri horrek indar mingotsa du, ez baitugu ahaztu behar *Egunkaria* itxita dagoela, betirako itxita. Amets hura, kostata aurrera atera genuen ametsa, kolpe batez itxi izana barkaezina da. Euskararen historian, euskal kazetaritzaren historian, hor geldituko da hori, estatu espainolaren lotsarako.

Babesa aipatu duzu. Zer daukazu gure irakurleei esateko?

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez. Izan dugun berotasun hori, inguruan beste batzuk izan ez duten berotasun hori, izugarria izan da, eta hori eskertzeko hitzik ez dago. Jende guztiak babestu gaitu. Hori da auzi honetako gauzarik ederrena, hemengo benetako poema, eta beste gauza guztiak gainditzen dituena. Ondo azpimarratu behar dugu zer gertatu den, hurrengo belaunaldiak jakin dezaten halako eraso bati nola egin behar zaion aurre. Batetik, ekintza bidez aurrera eginez, *Berria* sortu genuenean bezala, eta bestetik, biktima izan direnak babestuz.

“Ekintza bidez aurrera eginez eta biktima izan direnak babestuz egin behar diegu aurre eraso hauei”



Bazen ordua!

AINARA ARGOITIA, 'Egunkaria'-ko langile ohia

2003-II-20. Martxelo Otamendi Andoaindik eraman zuten unea. Argazkian, Ainara Argoitia pankartari eusten, eta Igor Sota, atzerago.

Ezin zen besterik etorri, baina hala ere, lasaitu ederra hartu dut Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak *Egunkaria* auziko atala artxibatzea erabaki duela jakin dudanean. Akabo, amaitu da 2003ko otsailaren 20an euskarazko egunkariaren kontra Espainiako Auzitegi Nazionalak hasi zuen eraso. Berandu dator, hala ere, albiste hau. Kaltea egina dago, eta ez edozelakoa. *Egunkaria* itxita dago, eta akusazio larrien pean eta zigor eskaera gogorren mehatxupean bizitzera behartu dituzte hamaika urtean orduan lankide izandako hainbat lagun. Haiek guztiak etorri zaizkit burura gaur, eta bereziki, absolutzioa merezi arren, auzia artxibatu izanarekin konformatu behar izan dutenak. Denak, gaur ospatzeko moduan direnak eta amesgaizto honek iraun duen 11 urte eta zazpi hilabeteko epean joan direnak, besteak beste *Egunkariaren* kontra-ko operazioan nahastu zituzten Inma Gomila, Martin Ugalde eta Luis Goia eta proiektu berriari heltzeko ausardia izan zuen Joxe Angel Lizarribar. Baita, nola ez, *Egin* egunkarian egindako lanagatik gaur kartzelan dauden lagunak ere.

Dantzan daukat barrua. Izan ere, oroitzapen asko dira *Egunkariari* lotutakoak. Barruraino sartuta daukat otsailaren 20 hartan egiten zuen hotza eta goizaldera esnatu ninduen lankide haren deia. Ezin dut burutik kendu Juan del Olmo Auzitegi Nazionaleko epaile donga hari aurpegia jarri nion eguna eta ezta Martin Ugalde kultur parkean autotik erdi zintzilik irten zen guardia zibil hark pankarta atzean geundenoi bota zigun begirasuna. Beldurrak akabatu-geunden (nengoen, behinik behin), dar-dar batean eta hotzak, geure begiz ikusten ari ginena sinistu ezinda.

Gogorrak izan ziren ondorengo egunak ere, eta oso luzeak lo bako gau haiek guztiak. Nola ahaztu, esate baterako, inkomunikazioak abaildutako Martxelo Otamendi kartzelatik irten beritan, negar zotinka, torturak salatu zituenekoa, eta nola ahaztu espetxe-

ratu eta bost bat urtera Joan Mari Torrealdairi berari lehenengoz tortura berba entzun nionekoa. Ohitu barik geunden lan haietara, baina jardun ginen pankartagintzan eta jardun ginen herriz herri *Egunkariaren* aldeko atxikimenduak jaso eta *Berria* sortzeko dirueskean. Gogoan daukat Martxelo Otamendirekin eta beste bi lankideekin batera kataluniarren babes bila eta *Egunkaria* endavant gehigarri berezia banatzera Bartzelonara egin genuen bidaia, eta gogoan baita ere Kontseiluak eta *Egunkariko* langileok martxoaren 13rako antolatu genuen Elkartasun Egunaren bezperan, Itziarren, guardia zibilek alto eman zidaten eguna. *Egunkariaren* aldeko materialez josita neraman autoa Debabarrenean banatzeko eta herriarrek emandako dirutza handia, bonotan. Sekula ez dut horrenbeste beldurrik pasatu. Batek daki zenbat urteko zigorra eska zezaketen guretzat, auskalo zer leporatuta.

Eta zer esan *Egunero* idazten genuen Hernaniko lokal hartako ordenagailu zahar haietan txandaka launa lerro idazteko pasatzen genituen arratsaldeez eta momentu gogor haietan lankideekin igarotako une goxoez. Oraindik ere oilo-larrua jartzen zait *Egunkaria* itxi beritan Donostian egin zen manifestazio hartako argazkiak ikusten ditudanean eta lankide nituenekin auzia salatzekeo batetik bestera egindako ibilerak oroitzen ditudanean. Ikaragarria izan da denbora guzti honetan *Egunkaria* auziak jaso duen babes, eta horregatik, doala hemendik nire esker-ona lagundu diguzuen guztioi, besteak beste Debabarreneko euskara elkarteetako lagunoi. Amaitu da, bai, baina nik hau dena eta gehiago bizi izan badut urte hauetan, zer ez ote dute bizi auzipetuek? Zeinek ordainduko digu egindako kaltea? Non dago justiziak bermatu beharko lukeen erreparazioa? Estatuaren eta Guardia Zibilaren paranoien biktima izan da *Egunkaria* ere; itxi zuten eta ez da kalte-ordainik egon, eta ezta egongo ere, eta hala ere, lasaitua hartu dugu eta poztu egin gara.

Erretratu zaharra**1955**

Aste honetako erretratu zaharra Izaskun Uriguenek ekarri du BARREÑENA. 1955ean ateratako argazkia da, Domusantu egunean. Herriko umeak mozorrotuta irteten ziren garai hartan, herrian zehar dirua eskatzera. Datorren domekan izango da aurtengo Domusantu eguna, baina gaur egun jada ez dira modu horretako diru bilketak egiten. Gogora ditzagun zein diren neska gazte hauek:

Goian: Maria Jesus Osoro, Mari Karmen Zubizarreta, Izaskun Uriguen, Kontxi Riaño, Maria Jesus Iriondo, Ana Mari Lasa, Purita Iriondo. **Erdian:** Mari Karmen Gorriti (†), Maite Arana, Karmele Garzia, Maria Luisa Zubiaurre, Begoña Perea, Mari Tere Laskurain, Itziar Beristain. **Behean:** Ana Mari Iriondo, Maria Jesus Urain, Maria Luisa Galdoz, Arantza Arriola (†), Edurne Lasa eta Maria Jesus Kortaberria.



ESKERTZA

JOAQUIN HERRERO FERNANDEZ

2014ko urriaren 14an hil zen, 72 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JOSE AGUIRREZABAL CENDOÑA

2014ko urriaren 14an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Elkarbizitzaren alde egindakoagatik ‘Bateragune auzikoek’ berehala libre behar luketela aldarrikatu dute Elgoibarren

Jendetza batu da manifestazioan, tartean kultura, gizarte eta politikako ordezkariak anitza



Babes eta oihartzun handia izan zuen *Bateragune auzia* salatzeko zapatuan Elgoibarren egin zen manifestazioak. Askotariko jendea batu zen, iritzi ideologiko eta politikoei dagokionez espektro zabal eta anitza, eta *Bateragune auzian* “bidegabe preso” dituztenak berehala aske lagatzeko exijitu zuten aho batez. Bukaeran, Ainhoa Aznarez PSNko kideak idatzi bat irakurri zuen plazan bildutako jendetzaaren aurrean eta kartzelatuak, neurri handi batean, “Euskal Herriak bizi duen itxaropen eta ilusioaren erantzule” direla aldarrikatu zuen. Aznarezen ondoren, Lois Perez Leira historialariak hartu zuen hitza, Adolfo Perez Esquivel Bakearen nobel saridunak bidalitako mezua irakurtzeko. Espainiako Gobernuak *Bateragune auzikoekin* egindakoa gizateriaren kontrako eraso zela esan zuen Perez Leirak, Perez Esquivelen hitzak bere eginda.

Ordezkaritza zabal

Kartzelaturakoen senide eta gertukoak joan ziren manifestazio-buruan. 5ak askatu zioen pankartari eusten edo pauso bat atzerago ikusi genituen, besteak beste, Sonia Jacintoren ahizpa Nekane, Rafa Diezen seme Naïke, Miren Zabaletaren aita Patxi, Arkaitz Rodriguezen aita Agustin eta Arnaldo Otegiren seme Hodei eta emazte Mari Juli Arregi. Haien atzetik, eta *Euskal Herriak hartu hitza eta erabakia* zioen

pankartaren atzetik, eragile politiko sozial eta kultural askotako ordezkariak joan ziren, eta atzerago, herritarrek, pentsakera askotariko jendea. Aurpegi ezagunekin zerrenda luzea osa daiteke. Elgoibarren ziren, besteak beste honako hauek: Fernando Barrena eta Hasier Arraiz (Sortu), Pello Urizar, Rafa Larreina, Jon Peli Uriguen (EA), Oskar Matute (Alternatiba) Rebeke Ubeda (Aralar), Mertxe Colina (Abertzaleen Batasuna), Ainhoa Aznarez (PSN), Gemma Zabaleta (PSE-EE), David Fernandez (CUP), Joan Tarda (ERC), Jose Luis Uriz (PSC), Javier Madrazo (EBko koordinatzaile eta Eusko Jaurlaritzako sailburu ohia), Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia, Jon Peli Uriguen Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko foru diputatua, Jesus Uzkudun (CCOO), Txiki Muñoz (ELA) Iñigo Iruin eta Jone Goizelaia abokatuak, Xabier Amuriza bertsolaria, eta baita Elgoibarko Udaleko hainbat ordezkari ere: Alfredo Etxeberria, Bittori Zabala eta Rikardo Garate (EAJ) eta Miren Arrate Arrieta (EHBildu).

Astelehenean, *Bateragune auzikoak* kartzelatu zituztenetik bost urte bete ziren egunean, manifestazioaren inguruko balorazio “ezin positiboa” egin zuen Arnaldo askatu, politika askatu plataformak, eta eskerrik eman zizkien protesta ekitaldira batu ziren guztiei.





Jone Goirizelaia, Mertxe Colina, Gemma Zabaleta eta Laura Mintegi.



Javier Madrazo, Tasio Erkizia, Lois Perez Leida eta Hodei Otegi.



Hodei Otegi eta Patxi Zabaleta kartzelatuen senideak elkarrekin.



Iñigo Iruin abokatua, Rufi Etxebarria eta Tasio Erkizia.



Gemma Zabaleta, Jone Goirizelaia eta Martin Garitano.



Kartzelatutakoen senideek hasi zuten manifestazioa.



Alderdi politikoetako ordezkaritza zabala, bigarren pankartarekin.



Plaza bete egin zen manifestazio bukaerako agerraldirako.

Irailean...

JAIOAKOAK



Julen Galarraga
Gurutxaga Irailak 10
Jon eta Itziar



Iker Goikoetxea Almeida
Irailak 21
Oier eta Paula



Aratz Iturriagaetxebarria
Elorza Irailak 18
Asier eta Mirari

Yassin El Hachmi
Irailak 2
Abdeloua eta Nadia

Amine Guetbach
Irailak 10
Said eta Chehraz

Jone Riaño Chavez
Irailak 18
Ion eta Marisel

Ariane Garate Lopez
Irailak 20
Ibon eta Maryalex

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira

943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz

barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

Elgoibarko Izarrako bazkideek **3,50€** eta gainerakoek **4,50€**.

HILDAKOAK

Manuel Lazkano Aizpurua • 88 urte • Irailak 1
 Maria Tobajas Monreal • 94 urte • Irailak 6
 Fernando Lopez Villahoz • 53 urte • Irailak 6
 Faustina Zubiaurre San Martin • 90 urte • Irailak 9
 Ines Ucin Arizmendi • 87 urte • Irailak 9
 Maximo Gorosabel Velar • 84 urte • Irailak 9
 Miguel San Martin Maguregi • 82 urte • Irailak 14
 Ana Maria Zuazubizkar Goenaga • 87 urte • Irailak 19

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**


Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
 (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295



ESKERTZA

EDU EGAÑA IRUSTA

2014ko urriaren 10ean hil zen, 53 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MAITE MAIORA

Korrikalaria

Espainiako mendi lasterketen Kopa irabazi du, eta Limone Extreme, Munduko Kopako azkeneko proba puntuagarria irabazita, Munduko txapelkunordea izan da. Eta hori dena asteburu bakar batean. Handienen artean lekua duela berretsi du Maite Maiorak (Mendaro, 1980).

“Ezin da
gehiago eskatu.
Sinistu ezinda
nago”



Arg.: Mauro Binelli

Nekez izan dezake korrikalari batek zure azken hau bezain asteburu biribilik. Ala?

Ezin da gehiago eskatu, ez. Oso-oso pozik nago. Sinistu ezinda. Zorion-dei eta mezu pila bat jaso ditut. Ikaragarria da. Horrenbeste deirekin telefonoa ere bateriarik gabe daukat beti barren!

Noiz jabetu zinen Limone Extreme lasterketa irabazteko aukera zenue-la?

17. kilometroan-edo. Stevie Kremerrekin batera nindoan, gomarena eginez. Indarrez ondo nindoan, eta 17. kilometroan, aldatz beherkoa hasi behar zenean, Steviek 'aurrera, aurrera' esan zidan, pasatzeko esanez. Orduan konturatu nintzen lor nezakeela. Izugarritzko bultzada eman zidaten Stevieren hitz haiek. Ordura arte hirugarren zihuan Laura Orguèk ere halaxe esan zion losuri [Maiteren senarra] hamabosgarren kilometroan bere paretik pasatu zenean: "Maitek irabaziko du". Neuri ere aitortu zidan gero garbi ikusi ninduela garaile, beherkoa oso teknikoa zelako eta ustez niretzako egokiagoa. Gogorra izan zen, eta besoa ere irten zitzaidan bere lekutik, baina garbi neukan ezin nuela aukera hori galtzen laga. Ez nekien garbi Munduko Kopan podiumean sartzeko aukerarik izango nuen, puntu-saltsa handia zegoelako eta ez nintzelako jardun kalkulagailuarekin kontuak egiten, baina azkenean dena primeran irten zitzaidan.

Sasoiko zindoazela esana zenuen, baina espero zenuen?

Indartsu nengoen, eta ingurukoei ere esana nien, izatekotan, orain neukala aukera, baina egia esan, nik Stevie eta Laura ikusten nituen faborito. Emile ez horrenbeste, luzeagoetan hobeto ibiltzen delako, baina banekien besteek gogor jarriko zidatela. Joan aurretik bideo bat ikusi nuen etxean eta gustatu zitzaidan ibilbidea ere. Lehenengo bost bat kilometro lauak ziren, eta gero 1.500 bat metroko desnibela zetorren. Ja-

kina, karrera aurretik ezin nuen hori guztia igo, ez delako ona, baina 1.000 bat metroraino igo nintzen lasterketa baino pare bat egun aurretik eta sentsazio onak izan nituen.

Limone Extreme lasterketaren aurretik jokatu zen Haria Extrem, Espainiako Kopako azken proba. Ez zenuen jokatu, baina hala ere Espainiako Kopako txapelketa zeure egin duzu. Jarraitu zenuen Italiatik?

Bai. 8:00etan hasi zen lasterketa Lanzaroten eta ni ordu horretan jaiki nintzen Italian, gosaltzeko. Sakelakoa hartu eta mezu bat bidali nion Alfredo Gilen emazteari Ana Conde lasterketara agertu ote zen galdetzeko. 'Ordubete barru erantzungo dizut' erantzun zidan. Ez nintzen jabetu Kanarietan ordubete atzetik bizi direla. Ez zela agertu jakin nuen gero, eta poztu nintzen, egia esan.

Lortutakoak lortuta, denboraldia amaituztat emango zenuen, ala?

Nolabait esatearren, bai, baina larunbatean Gorbeia Suzien jokatuko da eta badaukat lehiazteko asmoa. Lasterketa polita da, eta etxekoa, eta denboraldia etxean korritzen amaitu nahi nuen. Egia esan gonbidapen asko jaso ditut hemendik urte bukaerarako, baina atsedena ere entrenamenduaren parte da, eta atsedena behar dut.

Kilimon Trail Mendaroko mendi lasterketako galtzerdiekin ikusi zintugun helmugan sartzen. Harro egoteko arrazoiak badituzte mendaroarrak zurekin, eta halako detaileak ikusita...

[Kar-kar]. Bai, bai. Hemen gabiltzanetako asko oso maniatikoak gara, eta ni era bai, jakina. Mila pare galtzerdi izango ditut, klase guztietakoak, baina hauekin ondo ibili naiz beti, eta zertarako aldatu? Babes handia sentitu dut beti herrian eta harro diot Mendarokoa naizela.

Nori eskaini dizkiozu garaipen hauek?

Ba ez dakit. Jende asko daukat bueltan, babes handia, baina garbi daukat hau guztia ezin izango nuela egin losuren laguntzarik gabe.

Debarrenako BTT martxa jokatu da domekan, Karakate inguruan

Bi ibilbide izango dira aukeran: motza eta luzea

Debabarrenako BTT martxa domekan, hilaren 19an, jokatu da. Debegesa garapen agentziak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak seigarren aldiz antolatu dute BTT martxa, eskualdeko hainbat elkarteren laguntzarekin. Izena emateko epea zabaldu dute, eta urriaren 17ra arte egongo da izena emateko aukera. Interesatuak www.kirolprobak.com helbidearen bidez eman behar dute izena, eta antolatzaileek jakinarazi dute egunean bertan ez dela izena emateko aukerarik izango. Txirindularitzan federatutakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatu gabeek 18 euro.

Ibilbideari dagokionez, bi ibilbide izango dira aukeran: bata, 25 kilometrokoa eta bestea, 45 kilometrokoa. Zailtasun maila altuko ibilbidea da lehenengoa eta oso altukoa bigarregoa. Biak ere Karakate mendian.

Goizeko 9:00etan hasiko da proba. Ohi bezala, irteera eta helmuga puntua Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean egongo da.



Akreditazioak probaren egunean bertan jasoko dira, 8:00etatik 8:45era, irteera puntuan. Parte-hartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute opari. Horrez gain, behin proba amaitutakoan, partaide guztien artean opari ugari zozkatuko dituzte. Hainbat ostatu eta jatetxek babestu dute proba, eta urriaren 18tik 19ra leku horietan %15eko deskontua egingo diete ostatua hartzerakoan eta bazkari edo afarietan. Zerrenda ikusteko: www.debarrenatura.com.

Luzapenean kanporatu zuen D-Link Zaragozak Concepto Egile taldea



Ezustekoa eman eta Lehen Mailako D-Link Zaragoza taldea

Errege Kopatik kanporatzea esku-eskura izan zuen Concepto Egilek martitzenean, baina luzapenean irabazi zuten zaragozarrek norgehiagoka. Arauzko denbora bina-ko berdinketarekin amaitu ostean, markagailuan aurretik hasi zuten elgoibartarrek luzapeneko bigarren zatia (3-2), baina bisitariak hiru gol sartu zituzten azken bi minutuetan. Olaizaga kiroldegira hurbildu ziren zaleek goi mailako areto futbol partida ikusteko aukera izan zuten, eta partida galdu arren, txalo artean agurtu zuten ikusleek taldea.

Josu Uriarte markinarrak irabazi du Idortorbeko bizikleta igoera eta Iñigo Larizek rollieski igoera

Urriaren 12ro egin ohi den legez, Idortorbeko bizikleta igoera antolatu zuen La-gun taldeak domekarako. 53 txirindularik parte hartu zuten, eta Josu Uriarte markinarra izan zen guztietan azkarrena, 14:34ko denborarekin. Ramon Garcia elgoibartarra sailkatu zen bigarren (14:40), irabazlearengandik sei segundora eta Azibar Iraolagoitiak egin zuen hirugarren (14:57). Hiru horiek izan ziren hamabost minututik jaitsi zuten bakarrak, baina hala ere, Josu Uriarte bera ere urruti gelditu zen Iñigo Larizek ezarritako errekorra ontzetik (13:21). Irabazleaz gain maila bakoitzeko onenak saritu zituzten antolatzaileek. Gaztetxoetan, Ciclos Iturriagako Imanol Alvarez gailendu zen, eta gazteen sailean, Pablo Zabala. 24-35 adin tartean Ramon Garcia saritu zuten, eta 46-55 adin tartekoetan, Jose Mari Fernandez. 56 urtez gorakoetan Tomas Arizaga izan zen azkarrena.




Rollieski igoera

Idortorbeko bizikleta igoera ez zen domekan jokatu zen proba bakarra izan. Izan ere, Txirindularien ostean rollieski-koak irten ziren plazatik Idortorberantz. Zortzi lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lariz izan zen guztietan azkarrena, 21:30eko denborarekin. Hala ere, antolatzaileek bi parte hartzaile gazteenak saritzea erabaki zuten: Irune eta Julen Chacon neba-arrebak. Emakumezkoetan Nahia Quincoces nagusitu zen. (25:57). Argazkiak eta sailkapenak ikusteko: www.elgoibarren.net.

Iñaxio Arregik irabazi du Mendaroko giza-proba taldearen aurkako desafioa

Iñaxio Arregik 62 plaza egin ditu, 80 kiloko burdin zatiarekin



Zeinek plaza gehiago egin jokatu zuten Iñaxio Arregik eta Mendaroko giza-proba taldekoek, eta Errosarioko jaien barruan egin zuten jokoa, zapatuan. 80 kiloko burnizatia hartuta egin behar zituen plazak Arregik eta 800 kiloko harriari tiraka besteek. Lagun bakarra, zortzi gizonek osatutako taldearen kontra. Arregi apustu bitxiak egindakoa zen aurretik ere, eta ezagunena beharbada zapatuan erabili zuenaren antzeko burdin-zatiarekin egin zuen 2002an. 104 kiloko burdin-zatia sorbaldan hartu eta Urko mendira igo zen orduan, sei ordu eta 45 minutuan. Zapatukoak, beraz, osagai guztiak zituen apustu erakarria izateko eta batu zen jendea Kalebarren plazan. Azkenean, Iñaxio Arregi berak irabazi zuen apustua. 62 plaza egin zituen azpeitiarrak, Mendaroko giza-taldekoek baino bost bat gehiago.

Iñigo Larizek hirugarren egin du Anboton

Iñigo Larizek hirugarren egin zuen zapatuan Anbotoko kilometro bertikalean. Aitor Osak irabazi zuen zapatuko proba, 39:53ko denborarekin, eta Mikel Beunzak egin zuen bigarren (43:30). Larizek 43:33ko denbora behar izan zuen ibilbidea osatzeko. Nesketan, Nahia Quincoces izan zen azkarrena (52:22) eta Oihana Azkorbeitia eta Nerea Amilibia sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan.

Pala txapelketa mistoko finala, gaur

Pala txapelketa mistoa iritsi da amaierara. 22 bikotek hartu dute parte txapelketan, eta bi bikote onenek jokatuko dute finala gaur arratsaldean: Igor Castañares eta Marta San Martín bikoteak, Kepa Arrizabalaga eta Nerea Iruaren kontra jokatuko dute. 19:30ean izango da partida, Kalegoen plazan. Sari banaketan Patxi Jauregi Euskadiko Pilota Federakundeko presidenteak hartuko du parte.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Antzuola 1 (Ohorezko Erregionala)
Getariano 2 – Elgoibar 1 (Erregionala)
Uda 2 – Elgoibar 6 (Jubenila)
Bergara 4 – Elgoibar 1 (Kadete A)
Zumaiako 3 – Elgoibar 1 (Kadete B)
Elgoibar 9 – Urki 0 (Infantil txiki)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Aurrera Saiaz 22 – Lagunak 8 (2. mailako nag.)
Pala
Lagunak 25 – Pinakurdi 10 (2. mailako nag.)
Lagunak 25 – Atxurbide 8 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Ibararte 0 – Concepto Egile 2 (Bigarren Maila B)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle Elg. 23 – Aiala ZKE 15 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elg. 14 – Aiala ZKE 19 (Jub. nesk.)
Alcorta Elg. 24 – Somos Eibar 28 (Sen mut.)
Pneumax Elg. 17 – Aiala Zarautz 6 (Kad.nesk)
Usurbil 31 – Beristain Elg. 22 (Jub. mut.)
Lauko Elg. 32 – San Adrian 28 (Sen. nesk.)
Usurbil 27 – Gabaz Elg. 26 (Sen. mut.)
Txariduna Elg. 29 – Amenabar 25 (Inf. mut.)
Gure Auzune 29 – Deca Elg. 29 (Kad. mut.)
Corazonistas 12- Bankoa Elg. 32 (Kad. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 19
12:30 Concepto Egile – Xota B (Bigarren maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
10:00 Elgoibar – Urola (Kadete A)
12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Kadete B)
16:30 Elgoibar – Ordiza (Jubenila)
Domekia, 19
9:30 Entrenamendua
12:00 Elgoibar-Anaitasuna (Alebinak/lagunartekoa)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 18
11:30 Ilkus Elg. - Eibar A (Inf. nesk.)
12:45 Murgil Elg. - Aloña A (Inf. mut.)
16:00 Bankoa Elg. - Amenabar (Kad. mut.)
17:30 Deca Elg. - Bergara (Kad. mut.)
19:00 Beristain Elg. - Tolosa (Jub. mut.)
Domekia, 19
10:15 Gabaz Elg. - Eibarko Haritza (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 17
20:30 Lagunak – Bergara (2. mailako jub.)
21:15 Lagunak – Urnieta (2. mailako nag.)

Gazte Express lehiaketan hartu zuten parte zapatuan Gaztelekuko lagunek

Gazteak eta hezitzaileak elkar ezagutzeko helburuarekin antolatu zuten lehiaketa


Gaztelekuan urtero egiten dute ekintza bereziren bat DBH1eko ikasleekin, gazteak eta hezitzaileak elkar ezagutzeko. Aurten, Gazte Express lehiaketa antolatu dute. Bi taldetan banatuta, hainbat proba egin behar izan zituzten gazteek, eta puntu gehien lortzen zuenak jasoko zuen saria. Kalegoen plazan hasi zuten lehiaketa. Talde bakoitzari mapa bana eman zieten, eta ordu eta erdi izan zuten kapitaina aurkitu eta Idotorbera igotzeko. Erlojurik ez zieten utzi, eta buruz kalkulatu behar izan zuten denbora. Talde moreak irabazi zuen lehenengo proba hori. Bazkalostean beste jolas batzuk egin zituzten, eta gorriek lehiaketa berdintzea lortu bazuten ere, tale moreak jaso zuen sari nagusia. Antolatzaileek esandakoaren arabera, egun “bikaina” pasatu zuten, eta dagoeneko hasi dira lehiaketaren bigarren edizioa prestatzen.



Munlet Mendaroko bikoteak EP4 diskoa kaleratu du

Bi kontzertu eskainiko dituzte urrian eta azaroan diskoa aurkezteko

Munlet Mendaroko bikoteak disko berria kaleratu du aste honetan: EP4. Lau abesti berri eta Pixies taldearen *Isla de Encanta* abestiaren bertsio bat jaso dituzte diskoan Her Professor eta Lady Fingers bikoteak. Diskoa formato digitalean atera dute, eta nahi duenak ondorengo webgunean entzun eta deskargatu dezake diskoa: <https://munlet.bandcamp.com/album/ep4>. Horrez gain, bikoteak eskuz ekoiztu duen mini-cd bat ere argitaratu dute, sorpresaren batekin. Tirada mugatua egin dute, eta 50 ale argitaratu dituzte soilik. Formato fisiko hori ekoizteak atzeratu egin du diskoaren kalera-teea. Lan handia hartu du bikoteak, baina euren entzuleei begira “lan garrantzitsua”



egin dutela adierazi dute. Datozen hilabeteetan eta 2105. urtean zehar beste EP batzuk kaleratzeko asmoa dute.

EP4 disko berria aurkezteko bi kon-

zertu aurreikusi dituzte: Urriaren 24an Gasteizko Ibu Hots aretoan eta azaroaren 28an, berriz, Bilboko Azkena aretoan izango dira.

Ezpata dantzarekin amaitu ziren Errosario kaleko jaiak domekan



Azken urteotako ohiturari jarraituz, Errosario kaleko Ama Birjinaren ezpata dantza dantzatu zuen Haritz dantza taldeak domekan. Dantzarietz gain, Alfredo Etxeberria alkateak, Udalbatzarreko hainbat kidek eta Elgoibarko Udal Txistularien bandak ere parte hartu zuen ekitaldian, eta herritar asko irten ziren kalera dantzaldia ikustera. Dantzaldia parrokiari hasi zen, eta ondoren Udal ordezkarien aurrean egin zuten dantzariak lehen saioa, elizako sarreran. Jarraian, Kalebarren plaza-rantz abiatu ziren guztiak, eta Kultur Etxe aurrean egin zuten bigarren dantza saioa. Errosario kalea Ama Birjinaren aurrean egin zuten hurrengo geldialdia, eta Kalegoen plazan bukatu zuten emanaldia.

‘Jolas sakona’ liburua argitaratu du Jexux Larrañaga mendaroarrak

Jexux Larrañagak *Jolas sakona* ize-neko liburua kaleratu berri du. Saiakera honetan, txapelketa garaikidea eta iragane-ko txapelketaren “zentzu antropologiko” ikertu du. Funtsean, kurgintza eta herrigintzaren ardatza da: bertsogintzaren jardun estetikoak kurgintzaren abangoardian kokatu du. Bertan adierazita dago ideien jarioa, sentimendua, erituala, sorkuntza eta etika; eta *Jolas sakona*, hein berean, herrigintzaren alorra da. Bere zeregina kulturean ekoizten ari den harreman ehunaren bizi-berrikuntzan datza, eta komunitatearen ekoizpena du jomuga.



ETXEBIZITZAK

- Etxe polita salgai erdigunean. Bi logela, bero-gailua. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **688 691 327**
- Etxea alokairuan: bi logela, egongela handia, terraza, ganbara. Altzari eta igogailuarekin. ☎ **646 581 666**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **636 310 711**

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, orduka. Esperientzia daukat. Dendetan ere lan egingo nuke, jendaurrean lan egiteko doaiak ditut. ☎ **622 501 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna, gauzez... Ordu-tegi malgutasun handia. Esperientzia daukat. ☎ **626 914 904**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan ere bai. ☎ **680 121 252**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. ☎ **606 354 982**

- Neska eskaintzen da adinekoak, umeak edo ezindukak zaintzeko. Orduka. Geriatria ikasketak ditut. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka. Esperientziaduna. Gidabaimenarekin. ☎ **631 343 232**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Interna ere bai. ☎ **628 740 765**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Agiriak legez ditut. ☎ **602 186 462**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Gauzez ere bai. ☎ **631 417 995**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna moduan. ☎ **649 626 975**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Goizez. ☎ **628 529 252**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **608 523 426**
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **603 740 755**
- Gizona lan bila: sukaldari, adinekoak zaintzen, tornuan, fresadoran... ☎ **633 892 829**
- Geriatria laguntzailea, adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **646 931 162**
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Ordu-tegi malgua. Asteburuetan ere bai. ☎ **638 338 816**
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egin edo adinekoak zaintzeko. ☎ **602 057 896**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **690 064 225**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garajea salgai Maalan, Eroski azpian. Itxia, 16m2. Prezio onean. 22.000 euro. ☎ **675 007 661**
- Bi autorentzako lekua duen garajea salgai Maalan. Eraikin berria. ☎ **622 488 667**

PARTIKULARRAK

- Oinarrizko matematika eta finantzieroen eskola partikularrak hartuko nituzke. ☎ **618 022 434**
- Cambridge titulu-dun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Irakasle natiboa. Ume zein helduentzat. Cambridge azterketaren prestaketa. ☎ **943 740 225 (Francesca)**
- LH, DBH eta Batxilergoko eskolak ematen ditut. Matematika, kontabilitatea... ☎ **666 042 710**
- Magisteritzan diplomatuak laguntza klaseak emango lituzke. Esperientzia handia hezkuntzan eta ulermen arazoetan. ☎ **696 295 098**

OSPAKIZUNAK

- Artetxe Behean bizi direnen eta bizi izan direnen bazkaria, urriaren 25ean, Otzak jatetxean. Jai Alai tabernan batuko dira 13:00etan. Interesatuak 25 euro ordaindu behar dituzte Kutxabaneko kontu honetan: 2095 5036 58 1063931306 ☎ **627 941 261 (Maider)**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Etxebizitza erosi eta hipoteka-mailegua eskatu berri dut banketxean. Eskriturak nire izenean egin ditut, beraz etxebizitza hori nire ondasuna da. Ezkontzekotan nago, baina. Eta beraz, banketxeari ordaindu beharreko kuota hori irabazpidezko diruarekin ordainduko nuke. Nire galdera honako hau da: Irabazpidezko ondasunen sozietate horrek etxe horren gaineko eskubiderik izango luke?

Zuk jarri duzun adibide hori ohikoa da bikote askorengan. Ezkondu ordurako bikotekideetako batek badu etxebizitza bat eta hipoteka-mailegua ari da ordaintzen. Behin ezkondu, mailegu horren kuotak bien diruarekin ordainduko dira, eta hor zortzen da duda: berez etxearen jabe ez den horrek ba ote du eskubiderik?

Etxe-saltzaileari dirutan ordaindu zaionez, dirua finantza-erakundeari zor zaio. Zor bat badago, zeina irabazpidezko ondasunean ordaintzen ari den bikote hori. Kasu horretan etxeak jarraitzen du eroslearen ondasun pribatiboa izaten, baina beste pertsonak eskubidea du bikotekideari mailegua ordaintzeko jarri duen dirua buelta diezaion eskatzeko.

Irabazpidezko ondasunen sozietate hori desegin eta likidatzen denean kalkulatu eta abonatu da zor hori. Bikotekideetako bat hil, bikotea banandu edo dibortziatzen denean edo eta biek hala nahita ezkontza-erregimen ekonomikoa aldatzean desagiten da irabazpidezko ondasunen sozietate hori.

AHOLKUA: Bikote hori etxe horretan bizi bada eta etxe-jabeak etxe hori erosi edo errentan eman nahiko balu, ezkontidearen onspena beharko luke.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Jairo**, urriaren 6an 4 urte bete zenituelako. Aita, ama eta bereziki Amandaren partez.



• Zorionak, **Julen!** Segi horrela, txapeldun! Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Oier Arriola**, zure hamalagarren urtebetetzean. Patxo handi bat, Xabiren partez.



• Zorionak, **Trini**, bihar 90 urte egingo dituzuelako. Lagunen partez, ondo pasa.




• Zorionak, **Danel**, asteazkenean 9 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez, besarkada handi bat. Segi horrela.



• Zorionak, **Anertxo**, urriaren 15ean 2 urte! Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Manex!** Atzo 7urte bete zenituen arren, zu beti gure txikitin, mutil handi! Muxu potolo bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Gaiuri eta Xenki**, 4 eta 3 urte egin dituzuelako. Etxekoen partez.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€

Argazki bikoitza:

7€

Hirukoitza:

9€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

3'50€

Argazki bikoitza:

6€

Hirukoitza:

8€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEko bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

Urriaren 22an,
landareak ezagutzeko
irteera. Izenematea
urriaren 21era arte.
Plaza mugatuak



Urriko sukalde txokoan
CREPAK egingo ditugu.
Animatu zaitetzte!

19 domeka

Mendi irteera

09:30 Akondiar irteera
Morkaikok eta herriko ikastetxeek antolatuta, Mintxetan elkartuko dira, handik Arratera joateko. Akondiarako bidea oinez egingo dute.

Musika

12:30 Kontzertu berezia

Musika Eskolako Bandak eta Udal Musika Bandak eskainiko dute kontzertua, Herriko Antzokian. Txomin Mujika eta Joseba Garmendia izango dira zuzendariak. Egitaraua:

1. Emon emon (F. de Beobide).
2. Ammerland (Jacob de Haan).
3. Film Festival (H. Kolditz).
4. Moment for Morricone (E.Morricone).
5. Pops in the spots (R. Kernen).

21 martitzena

Hitzaldia

19:00 'Kutxabank publiko eta soziala'
EHBilduk antolatuta, Kultur Etxean.

23 eguena

Hitzaldia

18:30 Sare sozialak eta gaztetxoak
Iratxe Esnaola Arribillaga, Deustuko irakaslea izango da hizlaria, eta tertulia formatoan izango da saioa. Kultur Etxean.

24 barixakua

Erakusketa

18:30 Margo erakusketa
Azaroaren 2ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
10 Garitaonandia	Astelehenetik igandera	Azkue (Eibar)
11 Etxeberria		Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)
12 Etxeberria	Yudego	
13 Fernandez		
14 Yudego		
15 Zabaleta		
16 Barrenetxea		
17 Ibañez		


* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)



«Lucy»

17, barixakua: 22:15
18, zapatua: 19:00 / 22:15
19, domeka: 19:00
20, astelehena: 21:30

Zuzendaria: Luc Besson.
Frantzia, 2014. 89 min. Zientzia fikzioa. Aktoreak: Scarlett Johansson, Morgan Freeman, Choi Min-sik. Istorio ilun batean murgilduko da Lucy, berak nahi ez duela. Bere gaitasun guztia erabili beharko du gaizkileak gainditzeko, eta bere gaitasun horrek gizakiaren logika guztiak gaindituko ditu.

«Malefica»

19, domeka: 16:30



Zuzendaria: Robert Stromberg.
AEB, 2014. 98 min. Fantasia. Aktoreak: Angelina Jolie, Elle Fanning, Sharlto Copley. Loti Ederrea istorioko Malefica maltzurri buruzko filma da. Maleficak bere erreinua defendatu nahi du, eta horretarako, Aurora erregearen alabaren kontra-ko madarikazio bat erabiliko du.

«Frances Ha»

Ongarri zinekluba

23, eguena: 21:30



Zuzendaria: Noah Baumbach.
AEB, 2012. 86 min. Komedia dramatikoa. Aktoreak: Greta Gerwig, Mickey Sumner, Michael Esper, Adam Driver. Frances Nueva Yorken bizi da, baina ez dauka apartamenturik. Frances dantza talde bateko ikaslea da, baina ez da dantzaria. Bere lagunik onena Sophie da, baina une honetan ez diote elkarri hitzik egiten. Gaztaroa, adiskidetasuna eta bizitako helburuei buruzko fabula bat da.

www.hamaika.eus

GURE BEGIZ IKUSTEKO

Hamaika
telebista





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killmon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

